

OSTERA BE "BENIDORM"

Igaro dan zapatuan itxasorantza ibillaldi bat egin bear gendula-ta, Txatxarramandi'ko zubi-gain luzean gengoan nire adiskidea eta ni, an egalean karramarrotan ziarduan gizascme gazte zur bati adi be adi begira; iru edo lau butroi eukazan arrain-mota gozuok sare-artean arrapatzeko. Nora noa onekin? Ez arritu. Giza semeok be sarri edu orretan atartean sartu oi gaitue. Niri beintzat olako zerbait gertatu jatan igazko urtarrillaren lenengoan Benidormen aurkitu nintzan, ila eta erdian. Egiaz, damutu barik autortu bear.

Uri gizatsu au, inende onen asierara arte, kañaberaz eta olibo txaparrez jositako itxas-bater legorra besterik az bazan be, izena baiño ez ebana, gaur uri garrantzi aundikoa dozu, atzeritarrez batez be ornidua. Mediterraneo itxaso, naiko baketsu, dau sortaldetik sartaldera, ertzetan mendiak ditula, inguruka etxegiñerako lautadarik ez daukala-ta, etxe eta torre luze guztiak laiñoetaraiño doaz, gora-naiez. Zoragarria benetan urrin samar dagozan mendi-gaiñetarik begiratuta.

Gaur etxegiantza geld, dirudienez, ba dago be, itxas-urez kuin-kuin olibo-mukur zurrez eta kañaberadi gaur be agiri jakuzan zelai naiko lodiz apain ikusten doguzanak. Toki estua benetan lur-gaiñez uri nasaizabala jaristeko; beraz, gorantza, odeietara jo dabe etxe-jasotzaileak. Gure artekoak be, ez gitxi, ba-dira etxegille orrein artean. Besteen artean, or daroe "Etxe Zuri" izena bost olakok, an eta emen euskaldun ospea zabalduz. Bada euskaldunik uri gazte onetan, bai etxez, bai dendaz, bai tokiz...

Uri arrotza dirudi. Kalez ba zoaz, erbeste izkuntza inglesa, aleniana; italiarrak, belgarrak, sueziarrak, flamenkoak, portugesak, guztiak bertoko aizez, mediterraneo kresalez birikiak ornidu gura; zar eta gazte, ango edo emengoa dala, osasunak darabillen jentea dozu dan-dana.

Sei-zortzi izkuntza egiten dira bertan, bakotzak berea eta geienetan enparauena be, nai-ta ez ain ondo ulertzeko bcs-tean jakin. Barrero diñot. kalern, azoketan, dendetan, kafe eta jatetxeetan ainbat izkuntzetan mintzatu arren, iñoz ez da atxa, guziak alkar ulertzea, berba bat ulertu ezik, kiñuz aitzen emotea. Arazo ortan ikasbide ederra damoskue kanpotarrak, baita beste zer askotan be. Ni euskal txapelaz edo eleiztar antzera jazten nintzan eta irribarrez agur egin oi eustan, nik -mertxika erantzunik.

Komerzio ta denda-klase guztitik daukazu, alemanak eta inglesak geientsuak; salgei asko, bitxiak ugari, modu askotakoak; jateko ta edateko millaka klase ta motako. Jatetxeak aurrez, merke ta jan-naizu esaka. Miesa ta tela, oski eta zapata egoki, kolore ta era askokoak: dana jenteari "erosi naizu" esanez. Inguruak dotore be bai, erosleari atsegin emon nairik.

Or-emen azoka-denda ugari, aundiak eta txikiak. Nire oteletik, au da, "Ager Zuri" nire oteletik ezker-gora joaz, "Rosaura", "Galypso" eta olako otelak daukaguz, eta kale orren amairantza azoka naiko aundi bat, gauzaz ugaria; atsegin izana niri emen egon nizan egunetan, naikotan izana naz bertan, fruta klaseak nik gogoko batez be: kakiak, kuibiak, pomelork, granadak... batez be, emen artzen doguzanak, eta

artu leikezanak; Larra'n ba-daukaguz kakiak eta kuibiak, baiña ez pomelork eta granadarik. Azken bi oneik be aurten ipinteko asomtan nago. Gero, astean bi aldiz, Domeka ta eguastenetan, gure oteletik laster, zelai luzezabalean be-aldeko eta afrikar saleroslez leporaiño berterik, azoka ikaragarria egiten da. Ni be ara eroan oi nabe, kontuz ibilteko esanaz, "patatero" asko dabilela-ta. Patateroak joko guzurti baten azkar diran batzuk dozuz.

Gaur etxez beteriko lur-saillak ez ditu metro asko zabal, baiña luze iru bat kilonictro ei daukaz bizitza estu goi-zalez beteak. Luzeera ontan ezkerretik ondartza edatua, are zee gorritzakz batea, itxas barruan arrimokor pillo baltza daukala, erriaren leiendak diñoanez, ez dakit nok eta zein lekutatik ara jaurtia, ontzi bat daukazu ara joan-etorria egiteko.

Plaia ertzetik zear egurats-toki luzea, jente guztia emetik dabil egurasten, izkuntza eta aberri guztietakoak, baita euskaldunak be errez aukitzen dozuz bertan. Ondartzan ez bakarrik are biguna, baita ainbeste jarleku, etzun ogetxo ta abar daukazuz, eta illuntzean ainbat tramankulu baiñulariak egunez itxi dabezan loi, ondakin eta zakarrak kendu eta urrengo egunerako inguruak txukun izteko; naiz plaian eta naiz errian bazterrak garbi daukiezan giñerra darabillen askotxo dira Benidorm'en. Ezta arritzekoa: berton bizi diranak turistak dira-ta, onek naitaez garbitasuna eskatzen.

Ona beste oitura bat: egunero aurretik berbatuta dagozan oteletatara autobusak doaz albo-errietako tokiak eta arte-ederrak ikusten joan naiez dagozanentzat; dubarik, gin oi da arratsalde osoa, gaur txokolate-fabrika bat, biar zapata-leku bat eta abar. Bakotzak beti erosten dau zerbait, eta salketa polita egin dabe etxe askok, berreun millatik gorakoa sarri. Liburu saltzeak, narruzko-jake saltzeak janari eta edari saltzeak olantxe... Guk ez daukagu olakorik, baiña ez legoke txarto.

Gure bizimodua otelean? Gora bakoa dala? Nik ez dot uste. Urrin dagoanak jakin nai dau maite dauana zelan bizi dan, goizetik gabera. Emen asko dira gurasoak, seme-alabak, emaztea eta gaiñerakoak, biotzez maiteak, etxean itxirik, urrin bizi diranak, osasun-billa askotan, Alikante onetaraiño etorriak. Gabaz ogera an jagi bakotzak gura dauanean egiten dau; gosaria bederatzietatik aurrera; Agurtza eta mezea, egunero, euskeraz; bakotzak bere gauzak eta ondartza, bazkaria, lo-kuluska, irakurri, ikasi, ibilli, zortziretan aparria, egun bitik baten musika ta dantza amabiak arte.

Jatekoa ona da, "Sely Servis" moduan. Jantokian, mai luze bitan dagoz lenengo tresnak, koillara eta abar; gero jateko motak, bakotzak jan-alan artuko dauzanak, ogi, egoki, aragi naiz arrain, fruta-klase asko, gozoki eta gaiñerako kafea naiz likora bazkal-ostean edo-ta eguneko beste ordu baten nai dauanak artzeko areto berezi bat ago. Bazkari eta apari-ostean kalera orduko jentekajokoan ekiten dau. Edo-ta alkar izketa gozoan.

Ezta angoa bizimodu baldresa. Asmo askoz goriturik doa ara jentea, bat soin-atxakiren batetik osatuko dalakoan, beste

bat lanetik iges egiñik egun nasai batzuk igaroteko asmotan, alargun asko (gizonezko eta emakumenezko) bizi-lagun barri bat idoro nairik, urlia arek eta onek zirikatuta, baita (zergatik esan ez) sendian ez daukien bake-billa be... Egia auxa, Europa.tik eta Euskal erritik be mordoka, konta-ezin-ala aratzen dirala. Zerbait atsegiña dau arek, erakarpen bizia. Ori diñosku, naiz-ta gaur pizkat urrituta, ango ogctamar urteotako otel, departamento, egoitza eta jauregi ugaritze biziak.

Alderdi bi daukaz uriak, lengoa eta oraingoa. Lengoa or dago sortaldean, Udaletxea kale zarrak gaur dotoretuz oso apain; edonun legez, emen be zarra omendu nai, eta niretzat beintzat ikusgarri dago alderdi au. Sortaldetik beera jaso dira azken m•teotan ainbat eta ainbat egoitza luze baiizen zabal, nainundik datorren jente-uiolari erantzun nairik, alkarren gaiñean lez, gaurko uri askotan bezela nasai, zentzun aundi barik. Bai ondo dagozala Udaletxeetako agintari burutsuen erri-etxegintzari buruzko araudiak!

Orain, erdia etxez beteegi egin dalako, alboko mendi-egaletan gorantz asi da zabaltzen, ezker-eskuma alderdi bietan, leen txapar eta otatza besterik ez ziran pendizak ogetamar metro gorantz dituen egoitzaz, goigaiilluak kanpokaldek dabezala. Otel-jasotzea urritu dalarik be, oso-osoan amaitu ez deritxat egingo danik. Mendien albo bietatik diardue lanean; aspertu bako bizi gurea. Benidorm'en zoria, inguruko lurra leor, baiña giza-biotza ernekor.

Antxiña baten, emendik ibilli eta bizi izan ziran mariñel gizasemeen ontzi zar-baltzituen igesleku kañabararte genduan au, osasun-toki askorena gaur egiña. Gizaldiak zear ortik ibilli ziran errialdeak ez eutsen gora berezirik emon, berton inguruko baserritar eta jauntxoren batek ezik: oraindik agiri dira olakoak itxitako aztarnak. Urrengo baten egitekoak gara aztarna onein zeazketa.

Benidorm'en etzagoz bakarrik; bidez, trenez naiz egazkiñez, laster zagoz nai zeunken errian. Leku aukerakoa egi egiaz. Goitik naiz beetik bide zabal erosoak daukazuz. Sortaldetik lau-lau, laranja sail ikaragarrietan zear, Valencia'ra zoaz; sartaldera jo ezker, Alicante daukazu aurrez-aure. Inguruz inguru, ez urte be, laiño baltz lez, arri ta lur illun mokor amesti dituzu menditzar luzatuak, eta euren magaletan erriak an eta emen. Noizka ibillia naiz erriok ikuskatzen be. Ona batzuk:

GUADALEST: Zer askogaitik dau entzutea emen inguruan. Erri txikia alan be, arri mokorrez jantzitako muiñotxo gain, eta urte barruan ainbat osteria dagiez ara Benidorm'eko autobusak bertoko bazter, etxe eta lantokiak ikusten. Jana rietan kui, oillasko eta abar ba-dabe entzutea. Bardin dozu artesani-lanean.

BOLOP: Monumentuak, Gaztelu zar bat, eleiz nagusia, Txorruen iturria, urriñeko mendi igarretarik ekarritako uraz ikusgarri egiña. Esku-lanak, azpi-zapi, alfonbra eta olakoak ugari. Bazter ederrak eta ikuspegi zoragarriak, Gaztelu alde tik begiratzen ba'dozu.

FINESTRAT: Illuntzean eroan ninduen ona, kotxea urrin samar itxita, euri-lanparra zalarik. Mendi-ertzeko erri aldapatsua; gaiñ-gaiñeran dauka ermita bat barru ta kanpo ardu raz zaindua. Beste egun baten bertaratzeko gogoz jatsi nintzan andik euri-tantak be asi zirala-ta.

XABIA EDO JABEA: Burdiña eta arrizko arte-gauza asko, ikusgarriak. Erri bakotxak dauka bee ikusgarria, antxiña batekoa, urtez eta ekiñez ondu eta ugaritua, bertakoentzat

gaur bizibide ona. Erri oneik euren lan-eder eta salgeiz zabal kunde bizia eginda daukie Benidorm eta inguruetan.

DENIA: Ba-dozu emen be nun begiak ederrez asetu. Ainbat museu eder, aspaldiko gauzak eskinka, Eleiz nagusia eta agustindarra itxasotik mariskoa ugari eta lurtean arroza ez gitxi. Itxasorako gauza asko egiten dira bertan, mime-nczko saski, jostaillu eta olakoak parrastan.

KALPE: Ikusi zeinkez Arkaizeko Torrezarra, XVI'garren gizaldiko eleiza ederra; Salbadorearena; itxastiar jatekoak ugari eta guriak, olagarrotan aberats eta arroza, udarako josta-leku ederra potin eta antzeko ontzi askogaz. Ibiltoki nasai ederrak, etxe barriz doaz beterik inguruak.

ALTEA: Antxiñatarren bizileku bikaiña, erdi-unean. Goi ta bce, oso ez da edozelakoa. Gure artekoak be ez dira gitxi ara bizi izaten joanak. Ara-ona dabilztanak, alderrai diñot, albztari eta abar, ez dagoz mutu, baiña geu bez gara etxean lotuak, ez lenago eta ez orain.

CAALLOSA: Sarria deritxo lurralde ari, eta ikus nun-goak doguzan Sarriatarrak. Ba-daurkiguz emen beste abizen batzuk be. Gizaldi zarretan ba-leiteke gure asaba zarrak emendik be ibilli izatea. XVI'garren gizaldiko eleiz-burua. Berrio Arressia. Ikuspegi ederrezko bazterrak.

NUZIA: Alderdi oneik lekuz ez dituzu ezezarriak, baiña goitik ez intzik, ez euririk, noizik beinka zaparrada ondagarriak izan ezik, ez dozuz eder-atsegiñak. Beraz, euskaldunok!, ez jo illetarik gure mendi ta soloetan sarri badakusgu goitiko intz ongarria, mendiak berde eta baratzak guri ipiñiz. Onetsiak bediz otza ta euria!

Inguruotan diran lautada, muiño ta landetan, gaztelu, jau-regi ta jolas-toki ugari jaso dabez atzerritarrak eta bertokoak. Itxas-aldean lez emen be torretzarrak, amabost-ogei pisukoak; 34 pisukoa ei da Benidorm'eko jasoena, sartalderantz, goi-samar, areatzako paseo lekuari aurrez-aurre aurkitzen dana.

Klase biko torre-etxeak daukazuz, au da, otelak ni nagoana lakoak, amabost bat pisukoa eta apartamentuak, egoitzak. Oneik, pixu askokoak, pisu bakotxak sukaldea dauka, oe biko lo-gela, toki nasai bat lurtean, estalita, litera antzeko bi edo iru etzanguz, egonleku nasai bat eta aukerako begiralekua. Nik ikusi dodazanak ederto egiñak dozuz.

AITA ONAINDIA

